

**Eskaintza berria prest dago Gasteizen eta Iruñean, eta, pixkanaka, zabaldu egingo dugu gainerako herrietara**

**EROSKIK BESTE 4.000 PRODUKTU SALDUKO DITU ON LINE SUPERMERCATUAN, LEHEN BAINO %35 GEHIAGO, ETA PREZIO HOBEAN**

- Hemendik aurrera, hipermerkatuetatik hartuko dituzte on line mandatuak; horri esker, produktu eskaintza handitzea lortu dugu
- Batez ere produktu hauen kopurua igo da: tokikoena, freskoena, ekologikoena, osasungarriena, gourmetena, edergarriena eta parafarmaziena
- EROSKIren on line salmenta kanala %10 handitu da 2013an

**Elorrio, 2014ko maiatzaren 7a.-** [EROSKI](#) beste 4.000 produktu salduko dizkie, on line supermerkatuaren bidez, Gasteizko eta Iruñeko bezeroei; guztira, 12.000 erreferentzia izango dituzte hala. Gainera, prezio lehiakorragoak aurkituko dituzte, eskaera guztiak hiri horietako hipermerkatuetan prestatuko dizkietelako.

Batez ere produktu hauen kopurua igo da: tokikoena, freskoena, ekologikoena, osasungarriena, gourmetena, edergarriena eta parafarmaziena. Oraingoz, Arabako eta Nafarroako hiriburuetan egin dugu eskaintza, baina, pixkanaka, zabaldu egingo dugu gainerako hirietara.

*"EROSKIren Interneteko eskaerak supermerkatu batean hartzen ziren orain arte. Hemendik aurrera, berriz, Gasteizko eta Iruñeko hipermerkatuetan hartuko dira, eta, on line erosketa egiteko orduan, prezio hobek eta eskaintza gehiago aurkituko ditu erosleak"*, esan du Jaime Fernandez de Valderramak, EROSKIren Online Komertzio zuzendariak.

EROSKIren salmentak %10 handitu ziren 2013an, aurreko urtearekin alderatuta. Salmenta kopurua, hein handian, Euskal Autonomia Erkidegoan eta iparraldean igo da. *"Alderdi asko hobetzen ahalegintzen gara bezeroek erosketa egiteko orduan: [www.eroski.es](http://www.eroski.es) webgunea, produktu sorta, prezioak eta beharpenak, salgaia erosleari emateko momentua eta saldu ondoko zerbitzua"*, esan du Fernandez de Valderramak. Lehengo martxoan, adibidez, Internetez egindako erosketak hartzera joateko zerbitzua inauguratu zuen EROSKI Bizkaian; *Click & Drive* deritzo, eta autotik atera gabe egin daiteke. Alde batetik, oso erraza da noiznahi eta nonahitik EROSKI Onlinen erosketa egitea, eta, beste alde batetik, autoan joan zaitezke Leioako hipermerkatuko aparkalekuan dagoen emate-lastererako postuan eskaera jasotzera.

---

**EROSKI**

Komunikazio Zuzendaritza Korporatiboa  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 609 386 514

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI –PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[www.eroski.es](http://www.eroski.es) > [Notas de prensa](#)  
[www.consumer.es](http://www.consumer.es)



***Prentsa oharra***

[EROSKI Online](http://www.eroski.es) supermerkatua eskura dago [www.eroski.es](http://www.eroski.es) webgunean, eta 13 urte baino gehiago daramatza martxan. Gaur egun zerbitzu ematen du honako leku hauetan: Andaluzian, Aragoian, Asturiasen, Balearretan, Kantabrian, Gaztela-Mantxan, Gaztela eta Leonen, Katalunian, Ceutan, Extremaduran, Galizian, Errioxan, Madrilen, Nafarroan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan.

---

**EROSKI**

Komunikazio Zuzendaritza Korporatiboa  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 609 386 514

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI –PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[www.eroski.es](http://www.eroski.es) > [Notas de prensa](#)  
[www.consumer.es](http://www.consumer.es)